

# FAMILIA-ESKOLA LANKIDETZA

Egin bat erronkarekin



Familia eta eskola, ezinbesteko aliantza  
adimen- edo garapen-desgaitasuna duten  
ikasleen garapen integralerako

# ARGITARATZAILEA:

FEVAS Plena inclusión Euskadi

Adimen desgaitasuna duten pertsonen  
aldeko erakundeen euskal elkarte

Colon de Larreategi kalea 26, behe, C  
48009 Bilbo

Tel.: 94 421 14 76

comunicacion@fevas.org


**www.fevas.org**

## ILUSTRAZIOAK:

Pernan Goñi Olalde

**Lege Gordailua:**

BI-159-2018



2021ean argitaratua  
Hemen eskuragarri: [www.fevas.org](http://www.fevas.org)

Argitaratzailea:



FEVAS Plena inclusión Euskadi  
Adimen urritasuna duten  
pertsonek aldeko erakundeek  
euskal elkarte

Laguntzaileak:



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA  
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES


Familia eta eskola dira umeen hezkuntzan esku hartzen duten bi eragile nagusiak, biek elkar osatzen dute eta ezinbestekoak dira ikasleen garapen integralerako. Bi testuinguru horiek gizartearen funtsezko zutabeak dira, eta beren esku dago etorkizuneko herritarrak pertsona autonomo, kritiko eta konprometitu gisa prestatzeko erantzukizun handia.

Hezkuntza-sisteman jada bazegoen erantzunkidetasun hori, argiago nabarmendu da egungo testuinguruan. Pandemiak agerian utzi du lotura horrek hezkuntza-kalitatea bermatzen eta ikaskuntza-prozesuei koherentzia ematen laguntzen duela, are gehiago adimen- edo garapen-desgaitasuna duten ikasleengan.

Horregatik, FEVAsek defendatzen duen eskola inklusiboaren ereduak lankidetza horren eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten eragile guztien balioa azpimarratzen du.

Familiak hezkuntzan duten zeregina gurasoen elkarteetan (IGE), Eskola Kontseiluetan, bileretan... parte hartuz gauzatzen da. Hala ere, araudiak ez du zehazten lankidetza horrek nolakoa izan behar duen, eta ikastetxe bakoitzaren irizpidearen mende geratzen da.

Horregatik, gida honen helburua eragile horiek sentsibilizatzea eta harreman hori hobetzeko jarraibide batzuk eskaintzea da. Zalantzarik gabe, talde-lan horrek irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak errazten ditu eta eskola hobea sustatzen du.



Inoiz ez da nahikoa azpimarratuko **familiak hezkuntzan duten garrantzia**. Bere inplikazioa prozesu honetan ez da **erabakigarria** soilik, prozesua **legitimatua** egiten du. Guztiz ezinbestekoa da **komunikazioa, lankidetza** eta nahitaezko ikaskuntza-espazio batean **parte hartzea, ibilbide ulergarri, malgu eta askotarikoak** ahalbidetzeko, eskatzen diren **oinarriko gaitasunak lortzera** bideratzeko eta **bizitzan zeharreko** egiaztapena eta **prestakuntza** bultzatzeko.

# FAMILIA ETA ESKOLA, HEZKUNTZAN ERANTZUNKIDE



**FAMILIA  
ETA  
ESKOLA...**



**Ume bakoitzarentzat  
onena nahi dugu.**



**Erantzunkideak  
eta  
ezinbestekoak  
gara hezkuntzan.**


**Emaitzetan eta gogobetetasunean  
irabazten dugu noranzko berean  
arraun egiten dugunean.**



**EGIN BAT  
LANKIDETZAREN  
ERRONKAREKIN**


# LANKIDETZA-EREDU

Familiak eskolarekin duten loturak protagonismo handiagora eta zeregin aktiboagora eboluzionatu du hezkuntzan.



1 Hezkuntza-prozesua eta informazioa kontrolatzen duten eta erabakiak hartzen dituzten profesionalak.

Familia-ingurunea eskolatik kanpo geratzen da.



2 Kontrolatu eta gainbegiratzeko duten, baina familiak jarduteko gaitasuna dutela ueste duten profesionalak.



# BATERANTZ

3




Familiak hezkuntzan duen erantzukizuna, eskumena eta erabakitzeko eskubidea aitortzen duten profesionalak.

4

Erantzukidetasuna hezkuntzan. Bi testuinguru horien esperientzia eta ezagutza elkarren osagarri dira.

Elkarrekin lan egiten dute eta adostasunetara iristen dira helburu komunak lortzeko.






## Familiak askotarikoak eta bakarrak dira.

**A** **N** **i** **T** **Z** **A** **K**

Funtsezkoa da haiei entzutea eta haien balioak, beharrak, interesak eta indarguneak kontuan hartzea.





1



## Hezkuntza erantzukizun partekatua da.

Berdintasun-egoeran, familiek eta profesionalak, ikasleen eskolatzeprosesua osatzen eta babesten dute.





# LANKIDETZA

## Pertsonalizazioa oinarrikoa da bakoitzaren beharrei erantzuteko.

Pertsonalizazioak eta emaitza pertsonalen hobekuntzak lankidetzak eskatzen dute.



Familia-eskola lankidetzak ezinbestekoa da ikaskuntza, ikasleen garapena eta hezkuntza-kalitatea bultzatzeko.


# FAMILIEN AHOTSA

"Lasaitasuna ematen digu irakasleekin hitz egin dezakegula eta elkarrekin lan egingo dugula jakiteak".

"Guztiok esan behar dugu benetan zer pentsatzen dugun, eta giro atsegina sortu behar dugu elkarlanean aritzeko".

"Zailtasunei aurre egiteko elkartuta egon behar dugu".

"Bi aldeetatik errespetua izan behar da nagusi".



"Familiok informazioa partekatu behar dugu profesionalekin, ikasgelan eta neska-mutilekin lan egiten duten pertsonen artean geratu behar duen arren".

"Funtsezkoa izan da etengabe harremanetan egotea, etxean eta eskolan funtzionatzen zuenari buruz hitz egin behar genuelako".

"Duela urte batzuk irakaslearen iritzia nagusi zen eta familiak onartu egiten genuen. Gaur, familiak parte aktiboa izan nahi dugu".

# ZER BEHAR DUTE FAMILIEK?


- Errespetua, konpromisoa, segurtasuna eta konfiantza.




- Entzunak, baloratuak, ulertuak, lagunduak eta hezkuntza partaide sentitzea.




- Informazio argia eta zehatza.



- Ikastetxearekiko lankidetzaren esperientzia positiboa.



- Ulertzeko, hausnartzeko eta erabakiak hartzeko denbora.



- Malgutasuna, bakoitzaren egoera kontuan hartzea.



- Profesional gaituak: prestakuntza, ezagutzak eta esperientzia.



# ZER EGIN DEZAKE



# IKASTETXEA?

Eskola bakoitzak eraldaketa  
bultzatzen duten ekimenak  
gidatu ditzake.




# ZER EGIN DEZAKE

- **Inklusioa eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea zeharkako** elementu gisa sustatzen duten antolaketa-kultura, -politikak eta -jardunbideak sustatzea.



- Ikastetxearen, familiaren eta ikasleen artean ahalik eta gehien adostutako **komunikazio-protokoloak diseinatzea**. Hezkuntza-proiektuek eta ikastetxeko planek ikasleekin eta familiekin komunikatzeko sistemekin erlacionatutako alderdiak jaso ditzakete: ordutegiak, denborak, baliabideak, edukiak, espazioak...




- **Familien parte-hartzea eta lankidetzaren areagotzeko estrategiak** eskola-komunitateko kideekin adostea: batzordeak, topaketak, hitzaldiak, ekitaldiak, jarduerak...



# IKASTETXEA?



- Gatazkak kudeatzeko prozedurak ezartzea: jarraitu beharreko prozesua, kexak jaso eta kudeatzea, profesional bitartekarien figura, etika-batzordeak...



- Une erabakigarriak planifikatzea: harrera, agurra, trantsizioak, ikasturte-errepikatzeak, aldaketak...




- Hezkuntza-komunitatea prestatzea eta sentsibilizatzea, hezkuntza inklusiboan eta familiekiko lankidetzan bultzatzen duten estrategian eta metodologietan.

# ZER EGIN DEZAKE PROFESIONAL

Irakasleek, beren jardunbide egokiarekin, familien harremana eta inplikazioa sustatzen laguntzen dute.

## Eraiki egiten du:

- Errespetutik.
- Ume bakoitza baloratzuz.
- Jarrera positiboarekin.



## Partekatu egiten du:

- Hezkuntza-helburu eta -informazio garrantzitsua.
- Familiak eskola-lanarekin gehiegi kargatu gabe.



## Planifikatu egiten du:

- Familien harrera: jarraitu beharreko prozesua eta laguntza nolakoa izango den argitzen du.
- Bilerak eta beste topaketa batzuk. Hausnartu zer, zertarako, nor, noiz, iraupena, nola, non... trukerako benetako espazioak izan daitezke.



## Trantsizioak programatzen ditu:

- Gertatuko den aldaketa zertan datzan azaltzen du.
- Familiak lasaitzen eta zalantzak argitzen ditu.
- Etapak berriak erreferente izango diren profesionalekin koordinatzeko espazioak bilatzen ditu.






# BAKOITZAK?

## Komunikazioa zaintzen du:

- Zintzoa, hurbila eta argia.
- Enpatia eta entzute aktiboa praktikatzen ditu, aurretik epaitu gabe.
- Konfidentzialtasuna gordetzen du.
- Indarguneak eta konpetenziak balioesten ditu.
- Informazio eskuragarria eskaintzen du.
- Komunikazio-bideak dibertsifikatzen ditu: bilerak, eskolako agenda, informazio-panelak, gutunak, webgunea, posta, foroak, txostenak...



## Parte-hartzea sustatzen du:

### Familia

- Erabakiak hartzen laguntzen du.
- Senideak gelan motibatzen eta inplikatzeko dituzten gaien aurkezpena, kontakizunak, ipuinak, tradizioak, zenbait irteeratan laguntzea...

### Ikasleak

- Ebaluazio bakoitzean egindako lanaren berri bere familiari ematean ikasle bakoitza inplikatzeko.
- Ikasleak familiei zuzendutako materialak (deialdiak, liburuxkak...) diseinatzeko eta lantzen inplikatzeko.

## Jardun egiten du:

- Zuhurtziaz eta lasaitasunez, batez ere desadostasunen aurrean. Beharrezkoa denean kanpo-bitartekaritza eskatzen du.
- Eskura dauden baliabideak berraztertzen ditu eta jardunbide egokiak zure errealitatera egokitzen ditu.



**EGIN BAT ERKONKAREKIN!**

# BIBLIOGRAFÍA

## Hezkuntza inklusiboa. Berdinak dibertsitatean - Familiaren parte-hartzea.

Teknologien eta Irakasleen  
Prestakuntzarako Institutu  
Nazionala.  
Hezkuntza, Kultura eta Kirol  
Ministerioa.  
(2012)

## Familien eta profesionalen arteko lankidetzeta, inklusio egokirako indar katalizatzaile gisa. Amerikako Estatu Batuen ikuspegia.

Turnbull, A.P., Turnbull, H.R.  
& Kyzar, K.  
Revista de Educación.  
(2009)

## Premia bereziak ikasgelan.

UNESCO  
(1993)

## In aldizkaria. 18. zenbakia.

FEVAS Plena inclusión Euskadi.  
(2020)



# FEVAS Plena inclusión Euskadi

Familian oinarritutako elkarte-mugimendu bat gara, eta Euskal Autonomia Erkidegoan adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsoneri eta haien senideei zerbitzuak ematen dizkieten hainbat erakunde biltzen ditugu.

## Hauek biltzen ditugu:

Apnabi-Autismo Bizkaia

Aspace Bizkaia

Aspace Gipuzkoa

Apdema

Atzegi

Atzegi Tutoretza Fundazioa

Donostiako Goyeneche Fundazioa

Usoa Tutoretza Fundazioa

Futubide

Gaude

Gautena

Gorabide

Uliazpi

## Hezkuntza-arloan

Eskola eredu inklusiboa defendatzen dugu eta adimen- edo garapen-desgaitasuna duten seme-alaben hezkuntza-prozesuan laguntzen diegu familiei.

Hezkuntza-komunitateari eta gizarteari begira, hausnarketa eta ezagutza sortzen ditugu, irakasleak prestatuz, inklusioa sendotzen laguntzen duten argitalpenak eta baliabideak, gidak eta bestelako materialak landuz.



# GURE ERRONKEKIN BAT EGIN NAHI AL DUZU?

Kontsultatu  
FEVAS Plena inclusión Euskadiren

Egin bat erronkarekin  
bilduma.

Gure gida guztiak  
PDF formatuan  
deskarga ditzakezu  
webgunetik:

[fevas.org/eu/guias](https://fevas.org/eu/guias)

# IRISGARRITASUN KOGNITIBOA

Egin bat erronkarekin



Hezkuntza inklusorako,  
ikasleek ingurunea ulertzeko  
eta ikasketetara heltzeko duten  
eskubidearen alde.

FEVAS  
Plena  
inclusión  
Euskadi

# ESKOLA INKLUSIBOA

Egin bat erronkarekin




Ikasleen berezitasunei erantzungo  
dien eta pertsona bakoitzak  
ikasteko duen gaitasuna  
onartuko duen eskolaren alde.

FEVAS  
Plena  
inclusión  
Euskadi

# KONFIDENTZIAL- TASUNA ESKOLAN

Egin bat  
erronka-  
rekin!



Ikasleen pribatutasun  
eta intimitate eskubidea  
errespetatuko duen  
eskolaren alde

FEVAS  
Plena  
inclusión  
Euskadi